

Ikasleen amaiera festak


Asteburuan
egin zituzten ▶ 4



Udan kirola egiteko aukera zabala eskaini dute Tolosak eta Ibarrak

KIROLAK ▶ Igeriketa, piraguismoa, tenisa, hipika, aerobika, golfa, eskalada... eskaintzen dira

UDALAK ▶ Bi udalen eskaintza da; izen-ematea zabalik dago igerilekuan eta kiroldegietan ▶ 2



Hipika da aukera bat. A. ELDUEN



JOXE ETXEBERRIA ▶ ZAZPI-ITURRIKO LANGILEA

«Funtzionatzeko, ura
besterik ez du beharko»

AMEZKETA ▶ Joan zen astean inauguratu eta martxan jarri zuten berriro Zazpi-iturriko ur zentrala. 1974tik itxita egon ondoren. Bertan lanean aritutako Joxe Etxeberriaren adierazpenak eta sentipenak jaso ditu HITZAK. OLAJA ESKITXABEL ▶ 5

LEITZA ▶

Haur Eskolan etzi arte
eman daiteke izena ▶ 7

Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitez harpidedun!

Egun gutxi geratzen dira!

943 30 43 46

astegunetan
(08:30etik 20:30era)
larunbatetan
(09:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko

hitza

UDA KIROLA ▶



Ehunka lagunek ematen dute izena urtero Tolosako eta Ibarrako udalek antolatutako udako kiroletan. HITZA

Kirol eskaintza zabala udako hilabeteetarako

Igeriketa, piraguismoa, tenisa... daude aukeran Tolosako eta Ibarrako udalen 'Uda Kirolak 2004' kanpainaren baitan

ESKAINNTZA ▶

Adina	Kirola	Egunak	Prezioa
1996an edo lehenago jaioak	Piraguismoa	Ekainak 21-26: goizez eta arratsaldez Ekainak 28-uztailak 3: goizez Uztailak 5-10: arratsaldez Abuztuak 2-7: goizez eta arratsaldez	24,00 bixikiak 30,00 helduak
	Hipika	Uztailaren 5etik aurrera: uztaila, abuztua eta iraila, goizez eta arratsaldez (Txanda eskatzeko: 616 518597)	90,00 bixikiak 96,00 helduak
	Tenisa (TCF)	Uztailak 5-16 eta 19-30, abuztuak 2-13 09:00-10:00 Handiak 10:00-11:00 Ertainak 11:00-12:00 Txikiak	18,00
	Pilota	Uztailak 5-16: goizez eta arratsaldez	10,00
	Aerobik txikia (7-11 urte)	Ekainak 28-Uztailak 30 11:30: astelehena, asteazkena, ostirala	15,00
	Goiburu Golf (Andoain: 943 300845)	Uztaila, abuztua, iraila Hastapena: 9 ordu (6 egun), 3-5 lagun	108
1994an edo lehenago jaioak	Zesta-punta Eskalada	Uztaila, goizez Uztaila: 6, 7, 8, 13, 14, 15, 20, 21, 22 17:00-19:00	12,00 12,00
1992an edo lehenago jaioak	Urpekaritza	Uztaila: 13, 14, 15 Hastapena: 19:00-21:00	10,00
	Aerobik (12-15 urte)	astelehena, asteazkena, ostirala 10:30	15,00
1988an edo lehenago jaioak	Pilates	Uztailak 1-23 asteartea, ostirala 10:30-11:30	30,00
	Aerobik	Uztailak 1-23 asteartea, asteazkena, ostirala 09:30ean eta 15:30ean	18,00
	Aerobik	Ekainak 28-Uztailak 30 astelehena, asteazkena, ostirala 09:30 astelehena, asteartea, osteguna 19:00	18,00

IRATXE ETXEBESTE

Batzuek ez dute neguan astirik izaten, eta uda parterako uzten dute kirola egite hori. Besteek erruz egiten dute urte osoan, eta jarraipena eman nahi izaten diote udan. Kontua da, horientzat guztientzat eskaintza zabala egin dutela aurtan ere Tolosako eta Ibarrako udalek Uda Kirolak 2004 kanpainaren baitan, eta haurrek eta helduek izena emateko aukera dute honenazko uztailetik irailera izango diren ekintza ezberdinetan. Hilaren 30a baino lehen eman beharko dute izena.

Igeriketa, piraguismoa, tenisa, hipika, golfa, zesta-punta, urpekaritza, aerobika... Askotariko kirolak dituzte aukeran haurrek eta helduek. Horietako batzuk ekainean bertan hasi eta uztailaren amaiera arte izango dira, eta badira uztailaren edo abuztuaren soilik egingo direnak ere. Igeriketako hainbat eskola, bestalde, irailean izango dira. Prezioak ezberdinak dira kirol bakoitzerako, eta kirol batzuetan gutxiago ordainduko dute abonatuak.

Igeriketan 3 urtetik aurrerakoek eman ahal izango dute izena. Uztailaren 5etik 16ra, 19tik 30era, abuztuaren 2tik 13ra, 16tik 27ra eta irailaren 1etik 14ra eta 15etik 28ra izango dira txandak, adinaren arabera. 3 eta 4 urte bitartekoek uztailaren eta abuztuaren izango dituzte eskolak eta 5 eta 16 urte bitartekoek uztailetik irailera. Helduek, berriz, bi txanda dituzte aukeran: uztailaren 5etik 30era eta irailaren 1etik 26ra. Hastapeneko eta hobekuntzako ikastaroak izango dira igeriketan; hobekuntzari dagokionean, bi maila izango dira, gainera: hobekuntza 1 eta hobekuntza 2.

Hamar eguneko ikastarorako, 3 eta 4 urtekoek 18,25 euro ordaindu beharko dute abonatu izanez gero eta 22,25 euro abonatu ez direnek. 5 eta 16 urte artekoek 17,50 euro ordaindu beharko dute, eta helduek 43,50 euro abonatuak eta 53,50 euro abonatu ez direnek. Abonatu ez direnek aparte ordaindu beharko dute eguneko sarrera. Helduen ikastaroak 25 egunekoak izango dira.

Hobekuntza ikastaroetan izena eman nahi izanez gero, bi mailatutik bat aukeratu beharko dute partaideek: lehenengo mailan nola edo hala 5 metro igeri egiten dutenak, aurpegia 5 segunduz uretan edukitzen dutenak eta 5 segunduz ur gainean ahuspez egoten direnak sartuko lirateke. Bigarren, berriz, 10 metro igeri egiten dutenak, ur gainean ahuspez eta ahoz gora 5 segunduz egoten direnak eta uretara jau-

IZEN-EMATEA ▶

Hilaren 30a baino lehen eman behar da izena hautatutako kirola egingo den lekuan: Tolosan, Igarondo igerilekuan edo Berazubi kiroldegian eta Ibarran, Belabieta kiroldegian. Hipika edo golfa egin nahi dutenek bertara deitu beharko dute —ikus koadroa—.

TOLOSAN

▶ Igarondo igerilekua.

Piraguismoa, tenisa, pilota, aerobika, zesta-punta eta buzeroa.

Ordutegia. Ekainaren 30a arte, 09:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Telefonoa. 943 67 20 16.

Diru sarrera. Kutxan, izena eta ikastaroa adierazita: 2101 0067 27 0003013463.

▶ Berazubi kiroldegia.

Aerobika eta pilates.

Ordutegia. Ekainaren 30a arte, 09:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Telefonoa. 943 67 09 03.

Diru sarrera. Kutxan, izena eta ikastaroa adierazita: 2101 0067 27 0003013463.

IBARRAN

▶ Belabieta kiroldegia.

Aerobika eta eskalada.

Ordutegia. Ekainaren 30a arte, kiroldegiko ordutegian.

Telefonoa. 943 67 15 44.

Diru sarrera. Euskadiko

Kutxan, izena eta ikastaroa

adierazita: 3035 0141 83

1410900111.

zi egiten dutenak. Adinaren eta hautatutako mailaren arabera ordutegi ezberdina izango dute igeriketa eskoletan izena ematen dutenak; batzuk goizez eta besteek arratsaldez.

Izen-ematea zabalik

Kirol guztietarako izen-ematea zabalik da. Tolosako eta Ibarrako udaletako ordezkariak adierazi dutenez, hilaren 30a baino lehen eman behar da izena, eta derrigorrezkoa izango da diru sarreraren agiria ekintza bakoitzeko begiraleari ematea. Familia ugariek %50 gutxiago ordainduko dute.

Jarduera horietan parte hartzen dutenak «erantzukizun zibileko poliza batez babestuta daude, baina ez dute izango inolako asistentzia mediko, kirurgiko edo farmazeutiko kontzertaturik. Horretarako, Osakidetza zentroetara edo asaguru mediko pribatura jo beharko dute».

PRESOAK ▶

Azkarateri elkartasuna adierazteko, Alcalara martxa larunbatean

Laier eta Raku tabernatan eta Kultur Etxean eman daiteke izena autobuserako; 06:00etan abiatuko da, Triangulotik



Maiatzaren 24an Tolosan egindako manifestazio isila; militak gora lagunek hartu zuten parte. HITZA

LEIRE MONTES

Manu Azkarate preso tolosarrari elkartasuna adierazteko, Alcalá Mecoko espetxera martxa antolatatu du Manu Etxera plataformak. Plataformako kideek ekimen horretan parte hartzea deitu dituzte herritarrek, «Manuri animoak eman diezazkiogun».

Larunbatean egingo dute martxa. Goizeko sei etan abiatuko da autobusa, Triangulotik, eta eguerdian iritsiko dira Alcalara. Iluntzerako berriz ere Tolosan izango dira guztiak. Ekimenean parte hartu nahi duten guztiak astean zehar dute izena emateko aukera: Laier eta Raku tabernetan eta Kultur Etxean daude autobuserako zerrendak.

Azkarateri «babesa eta ani-

moak eman» nahi dizkiote plataformako kideek ekimen honenkin: «Manu etxera! aldarrikapenarekin batera, Manuri elkartasuna adierazi nahi diogu. Eta, gero eta jende gehiago izan, hobeto».

Era berean, Azkaratek «kalean» egon behar lukeela aldarrikatu dute berriro. Aurretik, beste hainbat ekimen burutu ditu Manu Etxera plataformak; besteak beste, arduradun politikoei eta gizarte eragilei bilerak, manifestazioak eta sinadura bilketak.

Egoerarekin «kezkatu»

Preso tolosarraren osasun egoerarekin «oso kezkatu» agertu dira Manu Etxera plataformakoak. «Bere gaixotasunarekin espetxeko eritegian

bizi dituen baldintzat jasangaitzak dira: janaria ezegokia, garbitasun eza...», azaldu dute.

Manu Azkarate gaixotasun larri eta sendaezina duelako zegoen aske 1992. urtetik. Aurtengo urtarilaren 14an, baina, atxilotu egin zuten berriro.

Javier Gomez Bermudez Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraleko epaileak baldintzapeko askatasuna ukatu zion preso tolosarrari, baina hirugarren gradua onartu zion, apirilaren 19an. Horrekin batera, hainbat baldintza ezarri zizkion. Azkaratek ez zituen bete beharreko neurriak onartu, «duintasun ororen kontrakoak» zirelako eta «preso edo askatasun baldintzatuan dagoen pertsonaren umiliazioa bilatzen» zutelako. Azkarate Alcalá Mecoko espetxean dago egun.

SANJOANAK ▶

Amarozko eskopetarien bilera, bihar

Amarozko eskopetari taldeak San Joan egunari begira, xehetasunak lotu nahi ditu. Horretarako, bilerara deitu du. Bihar bilduko dira, arratsaldeko zortzietan, auzoko lokaletan. Taldearekin atera nahi dutenak hitzordura ager daitezela eskatu dute.

GIZARTEA ▶

Sutea Alde Zaharreko denda batean

Atzo eguerdian sute txiki bat sortu zen Alde Zaharreko denda batean, Leiza eta Errementari kaleen arteko iskinan dagoen dekorazio denda batean, zirkuitulabur baten ondorioz, dirudienez. Suhiltzaileak eta Udaltzaingoa izan zen bertan. Inguruko dendei kalera irteteko esan zieten, segurtasun neurri gisa. 13:45ean lortu zuten itzaltzea. Ez zen kalte pertsonalik izan.

MENDIA ▶

Moncayora asteburuan Alpino Uzturrerekin

Alpino Uzturre mendi elkar-teak bi eguneko mendi irteera antolatatu du astebururako, Moncayo mendikatera. Larunbatean Moncayo mendia (2.313 metro) igoko dute, eta igandean Lobera (2.227). Izen-ematea elkartean (Gudari 5, behe. 943 65 27 89).



Suhiltzaileak dendan. J.SAIZAR

SANJOANAK ▶

Areto futboleko txapelketan izen-ematea amaitzeaz

Hilaren 21etik 24ra XVI. San Joan Areto Futboleko Txapelketa jokatu da Berazubiko kiroldegian, Arsenal Kirol Elkartek antolatuta. Etzi da izena emateko azken eguna, Shanti Kirolak-en (943 65 34 24). Tolosaldekoek, Leitzaldekoek eta Legorretakoek joka dezakete. Lau mailatan ariko dira: 1992-93an jaioetakoak, eta 1994-95ekoak; ba-koitzean, neskak eta mutilak.

HITZALDIA ▶

Bidaie inguruko saioa, gaur, Kultur Etxean

Tolosaldeko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak, Tolosaldea Garatzen eskutik, bidaie inguruko hitzaldia antolatatu du. Bidaie konbinatuek, kontratuen inguruko irizpideez, bidaie eskubideez eta betebeharruez eta erreklamazio bidez ariko dira, besteak beste. 19:30ean hasiko da hitzaldia, Kultur Etxean, eta sarrera doakoa da.

berria
publizitatea:
publi@iragarri.net
943 30 40 30
Euskaldunok behar dugun **berria**

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

www.tolosaldecohitzza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Praktikak hilabetez HITZAN
uztailean eta irailean

Kazetaritza eta Euskal Filologia lizentziatuetako
Tolosaldeko eta Leitzaldeko
ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 - atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info
(ekainaren 22a baino lehen)

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Ikastetxeak festan

Ikasturte amaierekin batera, festak izan dituzte ikastetxeek asteburu honetan

GARAZI AZKUE

Ekaina iritsi da eta udako urtarorekin batera oporrak. Ikasle gazteenentzat ere ikasturteko azken egunak dira. Hori dela eta, festak izan dituzte asteburuan inguruko ikastetxeek.

Larunbatean bildu ziren Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxean eta Villabonako Fleming ikastetxean; Villabonako Jesusen Bihotza ikastolan berri, igandean izan zuten festa.

Pedro Mari Otaño ikastetxean guraso ugari bildu ziren egun guztian zehar. Goizean futbol partidak izan ziren: Pedro Mari Otaño ikastetxeko haurrak Jesusen Bihotzako ikasleen aurka. Haur jolasetan, puzgarrietan... parte hartzeko aukera izan zuten ikasleek; eta gurasoentzat mus txapelketak edota bazkaria izan ziren. Hala ere, ikusmin handiena haurren emanaldiak piztu zuen gurasoen artean: argazki kamera eta bideo kamera asko ikus zitezkeen. Ikastetxeko liburutegian, berri, ikasleek kurtsoan zehar egindako lanen erakusketak ikusi ahal izan zen.

Jesusen Bihotzaren igandean bildu ziren ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Txermingo erakinean egon ziren. Trikitilariak, krosa edo erakusketak izan ziren goizean. Bazkaria bukatu ondoren Eresargi Tipi abesbatzaren emanaldia ikusteko aukera izan zuten. Kiki, Koko eta Moko pailazoaren emanaldia izan zen hurrena. Eta ikastolako bertsolari gazteek ere izan zuten haien dohainak erakusteko aukera.

Fleming ikastetxekoek ere festa egin zuten larunbatean. Gainera, ikastetxearentzat urte garrantzitsua da, Arratzainek 25 urte bete baititu aurten. Hori dela eta, argazki erakusketa jarri dute Gurean. Ospakizunaren egitarauaren barruan kokatu zuten ikasturte amaierako festa ere: abestiak, dantzak, bertsoak eta jokoak izan zituzten bertara bildu zirenek. Bazkarian bertan, guraso irakasle eta ikasleen artean, 250 lagun inguru bildu ziren. Hau guztia Arratzainen bertan egin zuten.



Igandean izan zen Jesusen Bihotza ikastolako jaia; argazkian, Kiki, Koko eta Moko pailazoak. G. AZKUE



Fleming ikastetxeko guraso eta ikasleak Arratzainen bildu ziren larunbatean. G. AZKUE



Pedro Mari Otaño haurrek, ikasturtean prestatutako ikuskizunak aurkeztu zituzten. G. AZKUE

TOLOSALDEA ▶

Ikasturte amaiera Loatzo musika eskolan

Loatzo musika eskolak ere ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko ditu egunotan. Gaur Adunaren eta Larraulen txanda izango da. Adunan 17:30ean bilduko dira ikasleak udaletxeko kultur aretoan. Larraulen, berri, 19:00etan hasiko da kontzertua udaletxean. Bihar, Loatzo eskolako ikasleak Alizon bilduko dira, 19:00etan, erretoretxean. Eta Iruran 19:00etan izango da kontzertua elizan. Ostiralean Villabonaren txanda izango da; 18:00etan hasiko dira haurrak Gurea zineman. Eta azkenik, Ibarren, 19:30ean talde instrumentalak arituko dira plazan, Gazte festetan.

VILLABONA ▶

Udako ikastaroetarako dirulaguntzak

Villabonako Udalak, Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei, diru laguntzak eskainiko dizkio matrikula ordaintzen laguntzeko. Informazio gehiago nahi duenak udaletxeko Euskara Zerbitzura hurbildu beharko du, edo bestela, 943 69 35 01 telefonora deitu.

ANOETA ▶

Jubilatu bazkarirako txartelak salgai

San Joanetan egin ohi duten jubilatuen bazkarirako txartelak salgai daude jada. Astearte, 24ean izango da bazkaria, meza ondoren, 13:30ean Bentaldea bodegoian. Joan nahi duten herriko jubilatuek eta pentsiodunek txartelak erosteko aukera dute dagoeneko. Ostirala arte eskuratu ahal izango dira bazkarirako txartelak udaletxean. Bazkariaren ondoren egingo zaie omenaldia herriko bi jubilatuari eta opari banaketa egingo dute.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

JOXE ETXEBERRIA ▶ ZAZPI-ITURRI ZENTRALEKO LANGILE OHIA

«Orain botoiei emanda egin dezakete lehen eskuz egiten genuen lana»

Pasa den astean jarri zuten martxan Zazpi-Iturriko zentrala Amezketan; bertan lanean aritu zen luze Joxe Etxeberria



OLAIA ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Gutxi dira Zazpi-Iturriko zentrala Joxe Agirre bezain ondo ezagutzen dutenak; 1958an hasi eta 1974era bitarte, zentrala itxi bitarte, bertan lan egindakoa da amezketar hori. Hamasei urte horietan izandako gorabeherak eta pasadizok eta pasa den astean martxan jarritako zentralaren inguruko inpresioa jasotzeko aukera izan du HITZAK.

Alde handia somatu al duzu zentral berriaren eta zuk eza-gututakoaren aldean?

Zerikusirik ez du batak bestearekin; orain botoiei emanda egin dezakete lehen eskuz egin behar izaten genuen lana. Ura ateratzen zeneko tuboan zegoen sarean, esaterako, hosto asko pilatzen ziren udazkenean. Pasa den astean, inauguratu zenean, han zegoen tekniko bati galdetu nion hori ez gertatzeko zein sistema jarri zuten; botoi bati eman eta pantaila batetan ikusi ahal izan nuen,

bertan banengo bezala, dena garbi zegoela.

Zer sentitu zuen zentrala berriro ere martxan ikustean? Pertsonalki poza handia sentitu nuen; herriak parte du, gainera. Hainbeste urte bertan lanean eman eta gero azkenean maitasun berezia hartzen diozu lekuari.

Orain zuen lana makinek egingo dute. Lehen zenbat langile behar izaten ziren?

Ni hasi nintzenean, hiru langile eta enkargatua ari ginen lanean; baina, pixkanaka, langileak jubilatzen joan ziren eta ordezkorik sartzen ez zenez, ni bakarrik geratu nintzen. Ondoren, nire semea eta biok aritu ginen bi urtez lanean, itxi zen arte. Orain, langilerik ez da izango bertan; noizean behin, azterketa orokorra egitera etorriko dira eta kito. Gainontzeko lana mekanizatua izango da.

Eta zergatik itxi zen bada?

Etxe bakoitzean bonbila bat besterik ez zen izaten; baina, pixkanaka, argi indar gehiago-

FUNTZIONAMENDUA

«Aurrerantzean irabaziak besterik ez ditu izango zentralak, funtzionatzeko ura bakarrik behar baitu»

SENTIPENAK

«Hainbeste urte bertan lanean eman eta gero azkenean maitasun berezia hartzen diozu lekuari»

ren beharra nabaritzen zen: industria, etxeetako kontsumoa igo zen... eta, ondorioz, zentrala istea erabaki zuten. Semea eta ni, Tolosara Agua y Luz enpresara joan ginen lan egitera.

Eta orain errentagarria izango dela iruditzen al zaizu?

Bai, noski. Zentrala konpontzen eta beharrezko makinaria jartzen diru inbertsio handia egin dute, baina aurrerantzean irabaziak besterik ez ditu izango zentralak, funtzionatzeko ez baitu gasolina edota ikatza behar, ura baizik.

Zein lan egiten zuen Zazpi-Iturriko zentrallean?

Zentralaren martxan ikuskatzea zen gure zeregina. Ez zen lan gogorra; udaran ur gutxi izaten zenez, zentrala itxita ere egon zen urte batzuetan. Baina gero neguan ur emari handia izaten zenez, orduak sartu behar izaten genituen. Matxurak zeudenean ere komeriak izaten genituen zentrala berriro martxan jartzeko.

Hainbeste urtetan zentrallean lan egin eta gero izango duzu pasadizorik kontatzeko, ezta?

Lur azpiko tuboa eta gainekoa lehertu egin ziren eta ur guztia zentralaren barrura sartu zen, alternadoreak eta bobinak tapatuz. Makinak lehertzeko lehorgailu handiak jarri zituzten, baina ondoren martxan jartzen saiatu zirenean, erre egin zen makinaria eta dena bobinatu behar izan zuten.

HITZA eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoia

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailez gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beharpenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidedetza saila / Arreta telefonoa:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko

hitza

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika: 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdia)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ikia (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Iturrioz I. Euskal Herria 3
 (Ibarra). 67 09 15. Erbiti
 O. Lizarraga 7 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publici@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
 leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Eskaintza. Neska bat behar da
 etxekolanak egin eta ume bat
 zaintzeko. Tel: 943-67 58 95
 (19:00etatik 21:00etara).

BERROBI ▶ KULTURA

‘Hitzak patriketan’ haurrentzat emanaldia izango da bihar Etxolan

Iñaki Beraetxe eta Aizpea Goenaga aktore ezagunek hiru
kontakizun pedagogiko antzeztuko dituzte 18:00etan



Hitzak patriketan antzeztaneko une bat, aurreko saio batean. G. AZKUE

DANI GIBELALDE

Iñaki Beraetxe eta Aizpea Goenaga aktore ezagunek *Hitzak patriketan* haur txikienentzat idatzitako antzerki-lana eskainiko dute bihar 18:00etatik aurrera Etxolan. Antolatzaileek aipatu dutenez, herritar guz-

tiak gonbidatuta daude emanaldira. Barbara Kakalardoak, Agustina oiloak eta Pepa txikiak bidaia bat proposatzen dute magia aurkitzeko. Hiru kontakizun pedagogiko dira, irudimenez eta umorez beteak. Izenei buruzko lehen kontakizunean, Barbara kakalardo

oso pertsonaia berezia da. Izena ez doakiola batere ondo konturatzen da, bera oso kakalardo lasaia baita. Horregatik iragarki bat jartzen du egunkarian izena aldatuko dion norbait aurkitzeko.

Zenbakien istorioan, Agustina oiloa gauero joaten da katuakin festan azokara. Horregatik sekula ez da garaiz esnatzen eskolara joateko. Behin batean zenbakien ikasgaia galtzen du oso nekatuta dagoelako eta lo egin nahi duelako. Ez daki erloju berrian ordua ere irakurtzen. Nahiago du Agustina azokara joaten jarraitu eta zenbakiak ikasi gabe gelditu.

Azkena koloreen kontakizuna da. Pepa Peperen lehengusu txikia da. Pepe Peperen lehengusu zaharrena da. Peperi margotzea gustatzen zaio. Pepak ez daki margotzen. Pepak konbentzitu egiten du Pepe margotzen irakasteko. Pepek Pepari koloreak erakusten saiatzen da. Pepak bere bokazioa aurkitu du: margolaria izan nahi du.



45 bat lagun Gorritirako mendi irteeran

IBARRA ▶ Igandean Gorritira mendi irteera egin zuten 45 bat herritarrek Haitzetan Rajuren eskutik. Irteera «oso ondo» ateratzen zela aipatu dute antolatzaileek, eguraldiak lagundu eta «giro ona» izan zen nagusi. Gorritira iritsi eta

ederki bazkaldu zuten parte-hartzaileek, entsalada eta arkumea izan baitzuten sagardo eta ardo frexkoaz lagunduta. Bazkalostean, bi txalapartarik saio polita eskaini zuten; ondoren, etxerako buelta hartu zuten denek. HITZA

ELDUAIN ▶

Gernu-ihesa hizpide etzi Urdelar biltokian

17:30ean hasiko da saioa, eta aldaketa fisiologikoen berri emango da bertan

D. GIBELALDE

Osasunaren inguruko gaitan informazioa eta prestakuntza emateko asmoz, Kutzak Osasun Ikasgelak izeneko jardunaldi praktikoko batzuk antolatu ditu, doakoak, eguneroko bizitzarako ohitura eta praktika osasuntsuak ezartzeko. Udalak jardunaldi horietako batzuk aukeratu ditu herrian bertan emateko, eta lehena etzi izango da Urdelar biltokian, 17:30etik aurrera.

Gernu-ihesaren inguruan jardungo da bertan. Maila honetan sortzen diren aldaketa fisiologikoen berri emango dute, aldaketa horietara ahalik eta hobekien moldatzeko eta horrela, pertsona helduaren bizi-kalitatea hobetzeko. Bizitza ohitura osasuntsuak sustatzea du helburu jardunaldiak.

Saioak ordu eta erdi iraungo du. Besteak beste, gernu-ihesa zer den, emakumezkoena, gizonezkoena... sortzen dituen arriskuak, eta egunerokotasunean duen eragina aztertuko dute.

IBARRA ▶

Loatzokoek kontzertua eskaini zuten elizan

D. GIBELALDE

Herenegun, San Bartolome elizan Loatzoko musika eskolako ikasleek eta irakasleek emanaldi bikaina eskaini zuten. Urte osoan lanean aritu ondoren uzta ederra biltzeko eta disfrutatzeko aukera izan zuten. Ibarrako Udaletik zoriandu nahi izan dituzte Loatzokoak. Saioaren amaieran Emeterio Sorazuk, Ibarrako erretoreak, bertso bat kantatu zuen musika eskolako ikasle eta irakasle guztientzat, haien lan ona aitortuz eta eskertuz.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA



Haur Eskolako ikasle ttikiak zintzo-zintzo. JAIONE ASTIBIA

Umeak haur eskolan matrikulatzeko epea 18an bukatuko da

Hirugarren gela sortuko da hurrengo ikasturtean, horrela izena eman zuten guztiek lekua izanen dute bertan

JAIONE ASTIBIA

Ostiral honetan, hilak 18, etzi beraz, umeak Haur Eskolan matrikulatzeko epea itxi egingen da.

Matrikulazioa Haur Eskolan bertan egin behar da, 12:00-etatik 13:00era bitartean. Hori egin ahal izateko aurretik izena emana izan behar da, aurrematrikulazio eskatzen diren ziurtagiriak: haurren izena eta jaioterria (lehenagotik emana behar duena), gurasoen nortasun agirien fotokopiak, haurra inskribatuta da-

goen Gizarte Segurantzako kartilaren fotokopia, Famili Li-buruaren fotokopia, gurasoen 2003ko Errenta Aitorpenaren fotokopia eta banku edo aurrezki kutxaren bateko kartilaren fotokopia. Familia ugaria izanez gero, hori ziurtatzen duen agiri ofizialaren fotokopia ere aurkeztu beharko da nahitaez, beste eskakizunekin batera.

30 haur gehiago

Aurrematrikulazioa egiterakoan 2004-2005 ikasturterako, kontuak kontu, beste hogeita hamar haur gehiagok egin zuten bertan ikasteko eskaria, beren gurasoei alegia. Lehen-

dik bertan ari zirenak hogeita zortzi ziren eta horietatik erdiak bigarren urtez hor jarraitu behar zuten, horrela lekua beste hamalauentzat bakarra geratuz. Hau ikusita, beste gela bat sortzeko erabakia hartu zen, hirugarrena.

Hau dela eta, beraz, orain hiru langile ari badira lanean Haur Eskolan, hurrengo ikasturtean beste bat gehigo ere ariko da.

Orotara 40 ikasle ttiki baino gehiago izanen ditu Leitzako Haur Eskolak irailetik aurrera. Hamalau hilabetetako haurretatik hasi eta 3 urte bitartekoak dira denak eta tiki-ttikitandik, elkarrekin egoten eta jokaera pautak ikasiz joanen dira.

LEITZA ▶ KULTURA

Asketa Txiki abesbatza Zumarragan lehian

Antigua VII. Abesbatzen Lehiaketan parte hartu zuen lehengo larunbatean

J. ASTIBIA

Asketa Txiki abesbatza Zumarragan izan zen pasa den larunbatean, Antigua VII. Abesbatzen Lehiaketan. Ez ziren irabazle suertatu, baina «epaimahaiko bi kidek, ondora etorri eta hortxe-hortxe ibili ginela adierazi ziguten», zioen gustura, abesbatzaren zuzendari den Juan Bautista Irazokik. «Haletako batek gainera, bereziki zoriondu gintuen, gurea bezalako herri ttiki batean horrelako koruak mantentzea zaila delako, eta gainera kalitatezkoa izatea, are gehiago», gaineratu zuen.

30 umeak abesbatza da hau, 8 eta 16 urte bitartekoak,

eta nonbait urtez urte ez ezik, erabat aldatzen joaten dira ki-deak «bestelako gauzetan ere ibiltzen baitira», eta hala ere irauteaz gain, ongi kantatzeari «meritugarrizatz» jo omen zuten.

Asketa Txikiren erreperatorioan *Begiak*, *Txeru*, *Txiribogin andrea* moduko kantauk egin zituzten, besteak beste. Baina ez omen ziren horretara mugatu, «haurrak hagitz konten ziren, bazkalondan, inork deus ere esan gabe, beraiek bakar-bakarrik, sekulako kontzertua eman baitzuten, zezkiten kantu guztiak kantatu», Irazokiren esanetan «instrumentu propioa omen den ahotsaz baliatuz».



Amazabalen ikasle festa

LEITZA ▶ Atzo Amazabal BHIn kurto bukaerako festa burutu zuten. *Maxurrenea herrintzat* lemapean egin ere. Jokoak, kirolak, erakusketak... gauza franko izan zen, txapelketetako ohiko lehiak barne, pilotan bereziki. Denak ez ziren bertan ordea, oroitzera eman zuten, Batxilergoko 2. mailako ikasleak selektibitateko frogak egiten ziren eta 1. go mailako hainbat, berriz, azterketa garaian daude. Eutsi! J. ASTIBIA

iragarki laburrak ▶



Aia. Baserrira salgai, bi solairuko, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.
Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai.
Alegia. Berrikuntza behar duen etxebizitza salgai; hirugarren pisua, garajea eta trastelekua.
Anoeta. Etxebizitza eta garajeak, eraikuntza berriak, azken aukerak.
Anoeta. 370 m²-ko 2 pabiloi modulotan salgai, berriak.
Belauntza. 1.060 m²-ko pabiloia,

erabat garbia, argitsua eta garabiarrekin.
Belauntza. 264 m²-ko eta 275 m²-ko pabiloi berriak. Estreinatze.
Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²-ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera. 234.400 euro.
Gaintza (Nafarroa). Hiru solairuko baserrira salgai, berritze.
Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza. Berritze. Lehenengo pisua. Kanpoaldera.
Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza. Egoera onean. Altzariez hornitua. 198.335.
Ibarra. 75 m²-ko pabiloia salgai,

2.500 m²-ko lursailarekin nekazaritzarako egokia.
Irura. Apartamentua lorategiarekin, beheko solairuan.
Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta lorategia beheko solairuan.
Ligorreta. 1.000 m²-ko pabiloia salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.
Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berritua.
Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloia salgai. Eraikuntza berrikoak.

Matxinbenta. Berritu beharreko lau solairuko etxebizitza.
Segura. 60 eta 90 m²-ko 2 etxebizitza salgai.
Tolosa. Etxe abikia. 180m²-koa, lau gela, bainugela eta komun. Altzariz hornitutako sukaldea.
Tolosa. Nafarroa etorbidean 140m²-ko etxebizitza. Garajea aukeran.
Tolosa. Errementari kalean berrituta dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekuarekin.
Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, garajea ibia salgai. 16 m²-koa.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ikaztegieta. Arabar Errioxara irteera 08:30ean udalebe aurretik.
Tolosa. Astebururako Alpino Uzturre elkarteak irteera antolatu du Moncayo (2.313 m) eta Lobera (2.227 m) mendietara. Irteera larunbatean 07:00etan Gorosabeletik izango da. Izen-ematea: Alpino Uzturre (Gudari, 6. 943 65 27 89).
Tolosa. Alcalako espetxera joateko autobusa Manu eberra plataformak antolatuta, larunbatean 06:00etan abiatuko da. Izen-ematea: Tolosako Kultur Etxea eta Raku eta Laier tabernetan, Alegian, Anoetan, Ibarri eta Villabonan.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Maria Carmen Gorbea margolariaren koadroak Saikin tabernan. Hilaren amaiera arte.
Tolosa. Charo Berra pintore tolosarraren margolanak Lanbroa tabernan. Hilaren bukaera arte.
Tolosa. Faustino Aranzabalen margolanak ikusgai Aranburu Jauregian uztailak 3a bitarte.

MUSIKA

Aduna. Loatzo musika eskolako ikasturte amaierako kontzertua, 17:30ean, Elordi plazako lokalean.
Larraul. Loatzo musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua, 19:00etan udalebean.
Tolosa. Ainhoa Arteta sopranoa, Ainhoa Zubillaga mezzosopranoa eta Pedro Jose Rodriguez pianojolearen kontzertua Leidor zineman 20:00etan.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Jose Luis Maioz (Donostia).
Zorionak zure lagun M. Jesusen partetik.



URTE ASKOAN
M. Cristina Zeberio (Ibarra).
Urte askoan! Ainhoa, Goretti eta Julenek muxu bana.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzek, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaiaberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
Mila esker!



Haurrek eta gazteboek tailerrak egiten jardun zuten begiraleekin. HITZA



Bazkaritara ia bostehun lagun bildu ziren larunbatean. HITZA

Lehena, giro ezin hobean

TOLOSA ▶ Larunbatean egin zuten Hirukide ikastetxeko ikasleek, irakasleek, langileek, gurasoek eta begiraleek ikasturteari amaiera emateko festa eguna



Kirola egiteko aukera ere izan zuten ikasle zaharrenek. HITZA

I. ETXEBESTE

Ikasturtea ia amaituta, larunbatean eman zioten Hirukide ikastetxekoek izen horrekin lehenengoz osatu duten ikasturteari bukaera. Festa handia antolatu zuten horretarako, eta ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak bildu ziren bertan. Baita Kirikiño aisaldi taldeko begiraleak ere, haiek izan zirelako, hein handi batean, ekitaldiak prestatzeko ardura hartu zutenak.

Ekitaldi berezia egin zuten goizean, eta jarraian irakasleek eta begiraleek jolasak, tailerrak, kirol ekintzak eta puzgarriak antolatu zituzten txikienentzat. Gaztetxeko ere izan zuten ondo pasatzeko aukera, kiroltan haiek izan zirelako parte-hartzaile.

Eguerdian, bazkaria alaitzeko ikastetxeko gurasoek eta ikasleek osaturiko txarangak jardun zuen kiroldegian, eta arratsaldean dantza-jazzeko, soinketa erritmikoko eta judo-ikasleek ikasturtean zehar landutakoa erakutsi zieten bertan bildutakoek. Ondoren, puzgarriekin jolasean aritzeko

aukera izan zuten berriro ikasleek, eta Kiki, Koko eta Moko pailazoen emanaldiarekin barre egin zuten gogotik. Geroxe-ago beldurra pasatu zuen ere izan zen, buruhandiek irten zutelako ikastetxeko jolasleku-
ra. Batzuk haiek zirikatzen ari-
tu ziren bezala, gurasoen al-
tzoan ezkutatu ziren besteak.

«Egun ezin hobea igaro genuen bazkaltzera bildu ginen 546 lagunek», esan diote HITZA-ri Hirukide ikastetxeko ardura-dunek. Ikasle, guraso, irakasle eta begiraleen artean ia bostehun kide izan ziren bazkari-tan. Arratsaldean jende gehiago joan zen ikastetxera, eta guztira 900 bat elkartu ziren jaialdian. «Ea datorren urtean bigarren urteurrena hain giro politoan ospatzen dugun».

Hirukide izenez amaitze-
ar den lehenengo ikasturteak denetik egiteko aukera eman diela esan dute ikastetxeko irakasleek: kanpainak, irteerak, elkartrukeak, jaialdiak, kanpaldiak... «baina oraindik mila proiektu dauzkagu aurrera eramateko; lehena datorren ikasturtean jarriko dugu mar-txan: batxilergo eleanitza».

kalitatezko garbiketa azkarrak

EDREDOIA GARBITZEGATIK EDO ARROPA KONPONTEZEGATIK:
JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI
ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko
San Frantzisko, 19 • TOLOSA • 943 65 38 77